



## **Berorren Maiestatearen Gabonetako Mezua**

2021ko abenduaren 24a

Gabon.

Gabon-gau honetan nire lehenengo mezua La Palmako uhartean bizi zaretenentzat da, azken hiru hilabeteotan pasatzen ari zareten egoera mingarri eta latza dela eta. Sumendiak etxerik gabe, bizibiderik gabe utzi zaituzte, eta horrek herrialde osoa goibel utzi du.

Gaur, gure bihotzak eta gogoak zuekin daude. Zuengandik hurbil gaude, gure solidaritate osoa duzue eta Administrazio guztien lana eta konpromisoa zuen eskura dago, zeuen bizitzak eta ekonomia ahalik eta lasterren berrezartzeko, eta proiektuei gogoz berrekiteko.

Iaz, Gabon-gaueko mezuan, COVID-19aren krisia gainditzeko esfortzu kolektibo handia egin behar genuela esan nizuen, itxaropenak zientzian eta, batez ere, txertoetan jarrita.

Harrezkerotik urtebete igaro da, eta zuhurtasunez esan dezakegu egoera ezberdina dela. Pandemiaren aurkako borrokan nabarmen egin dugu aurrera: txertoa aurkitu eta baimendu egin da, herritar askok txertoa jaso dugu eta txertaketa-prozesua bera arrakastatsua izan da gure herrialdean. Horregatik, arto egon behar dugu.

Hala eta guztiz ere, birusak oraindik kalte handia egin diezagukeela ikusten ari gara. Bizkor ari da hedatzen eta, beraz, arriskua ez da desagertu. Alderantziz, hain zuzen. Horregatik, kontuz aritu behar dugu, babestu eta erantzukizun indibidual eta kolektiboz jokatu. Guztiok ahalik eta gehien egin behar dugu, hainbeste sufrimendu ekarri digun krisialdi ekonomiko honetan atzerako pausorik ez emateko. Krisiaren biktimak garai hauetan bereziki gogoratzen ditugu. Eta, berriz ere, egun hauetan osasun langileei esker handiak eman nahi dizkiegu, gure babes eta indar osoarekin.

Halaber, herritar askok pandemiatik eratorritako ondorio sozial, ekonomiko eta emozionalak jasaten jarraitu dute azken urte honetan. Alde batetik, gure ekonomia berriz hazten hasi da, eta aldi baterako etendako lanpostu gehienak berreskuratu egin ditugu. Langile kopurua bikain hobetzen ari da ere. Bestetik, ahultasun egoeran dauden pertsona-kopuruak gora egin du, ordea, eta, gaur egun, etxe askotan kezka handia dira prezioen hazkuntza, energiaren kostua edo enplegu egonkorra aurkitzeko zailtasunak, azken kasu horretan gazteen artean batez ere.

Eta horrekin guztiarekin batera, argi dago herrialdeak gero eta mendekotasun handiagoa dutela elkarren artean; horregatik, argi dago mundu-mailako konponbideak aurkitu behar ditugula partekatzen ditugun erronkei aurre egiteko, hala nola osasuna, non nazioarteko lankidetzaz eraginkorragoa eta sendoagoa ezinbestekoa den.

Orobat, teknologia berriei esker, enpresen ohiko ekoizpen-prozesuak aldatzen ari dira, eta hori ohiko lanean berean eragin handia izaten ari da: zientziak aurrera egiten du eta bizitza hobetu egiten du, baina gure bizitza pertsonalean eta gizartean alderdi askotan eragina du ere. Bitartean, batzuetan gure sinesmenak eta baloreak probatu egiten dira, edo giza-antolakuntzako eta askatasunez bizitzeko printzipioak zalantzan jartzen dira.

Horiek dira etorkizunean izango ditugun erronken adibide argiak, eta gaur egun bizi dugun garai konplexuaren isla; etengabe erne egon behar gara, ziurgabetasun eta kontraste ugari aurkituko baititugu.

Egoera honen aurrean, zer egin dezakegu? Ezkertasunaren menpe egon? Konformistak izan, arazoak berez desagertzeko esperoan? Ez dut uste.

Erreakzionatu behar dugula uste dut: Bizitzan ditugun transformazio bizkor eta berriak ulertu eta onartu behar ditugu, aurre egin eta gertaerei aurre hartzen saiatu; aldi berean, aldaketei bizkor aurre egiteko egokitu behar dugu, gure herrialdearen helburu eta lehentasun nagusiak ahaztu gabe. Proiektu, ideia eta aukera berrietarako garaia baita; hobetzeko eta aurrera egiteko asmo handiko ekimenetarako garaia.

Ekonomikoki eta sozialki gizarte aurreratua nahi dugu guztiok, enplegu egonkor eta duina duena, eta ongizate-estatu sendoa duena; gizon eta emakumeen arteko berdintasuna suspertzen jarraitzen duen gizarte nahi dugu, aurrerapen indibidualak eta sozialak babesteko; eta, noski, teknologian eta berrikuntzan punta-puntako gizarte nahi dugu, klima-aldaketaren aurkako borrokan aurretik doana, eta gure planetaren jasagarritasunarekin eta bere ingurumen-orekarekin erabateko konpromisoa duena.

Benetan uste dut aurre egin beharreko erronkak bidegurutzea direla, bai Espainiarentzat bai beste herrialde askorentzat. Baina aukera historikoa dira ere, baita gure herrialdea eguneratzeko eta modernizatzeko eskakizuna ere, gure printzipio demokratikoei eta bizikidetasunaren oinarri diren baloreei eusteko. Aurrerantzean egiten edo erabakitzen dugun horretan jokoan baitago herrialde aurreratuenekin batera hobetzen jarraitzea, edo, ostera, bide horretan gure abiadura murriztea.

Lan garrantzitsu horretan erakundeok erantzukizun handia dugu. Guztion interesak beti gogoan izan behar ditugu, eta herritarrengan eta beren kezketan pentsatu, horien zerbitzura egon eta horien arazoei erantzun eman. Konstituzioaren arabera dagokigun tokian egon behar dugu; bakoitzak ditugun betebeharrak gure gain hartu; legeak errespetatu eta bete, eta zuzentasun publiko eta moralaren adibide izan.

Horretarako, akordioa eta lankidetzak ezinbestekoak dira, erakundeak duin izan daitezen; are gehiago, sendotu egiten dituzte, herritarren artean konfiantza sortzen baitute. Nahiz eta iritzi ezberdinak izan, egonkortasuna eta herritarren ongizatea bermatzen dituzten akordioak behar ditugu, familia guztiek etorkizunari lasaitasunez aurre egin diezaioten.

Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, gizarteak oinarrizko papera dauka aldaketaz beteriko garai honetan. Azken 40 urteotan bizi izan ditugun egoerek, horietariko asko latzak, gure gizarte sendoa eta arduratsuago bihurtu dute. Gizarte solidarioa, pandemiaren hasieratik ikusi dugun bezala. Gure balio zibikoek, industrian, zerbitzuetan edo landan dugun talentuarekin, bizkortasunarekin eta energiarekin batera, etorkizuna eraikitzeke oinarria izan behar dute.

Norantz joan nahi dugun jakin nahi badugu, nondik gatozen jakin beharko dugu ere:

Demokrazia eta askatasuneko azken lau hamarkada hauetan Espainiak aparteko aldaketa sakonak izan ditu, eta ez dira kasualitate izan. Pertsona askoren eta milioika herritarren esfortzuan eta sufrimenduan oinarritu dira. Eta arrazoi askoren ondorio izan dira: historia ulertzeko modua, akordio handiak, eskuzabaltasuna, erantzukizuna eta etorkizun-sena.

Eraldaketarako proiektu handinahi hori konstituzioan irudikatzen da; horri esker, mendebaldeko demokrazia modernoan artean gaude, eta bere izpirituak batasuna suspertzen du banaketaren aurrean, elkarrizketa borrokaren aurrean, errespetua gorrotoaren aurrean eta integrazioa bazterketaren aurrean. Askatasunean oinarritutako bizikidetasun zibiko eta lasaia eman digu.

Gure aurrerabidearen bizkarrezurra izan da konstituzioa, eta izaten jarraituko du. Aurre egin ditugun jatorri ezberdineko krisialdi larrien aurrean bizikidetasun demokratikoaren euskarri izan da. Horregatik konstituzioa errespetatu behar dugu, aintzatetsi eta hari leial izan.

Gure herrialdearen etorkizuna Europar Batasunaren barruan dago; hori da herritar gehienek nahi dutena. Antzina Europa xede eta helburu izan zen, eta gaur egun errealitate politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala da. Bertan, gure Europar bazkideekin balio demokratiko berberak partekatzen ditugu, eta horiek egonkortasun, segurtasun eta konfiantzazko eremu instituzionala bermatzen digute. Eta aukera berriak ere.

Pandemiak, daukan konplexutasunarekin, Europar Batasuna indartu egin du, inoiz ez bezala konpromiso garrantzitsuak bere gain hartu baititu osasunaren, ekonomiaren eta enpleguaren eremuan. Eta orain, Europar Batasunak aukera eman digu europar funtsak gure herrialde eta enpresen modernizazioan inbertitzeko, ekonomia gero eta digitalagoa, berdeagoa eta barneratzaileagoa baita. Aparteko aukera da eta ezin dugu alferrik galdu.

Egoera gogorra da, bai, baina geldirik geratuz gero, atzean geratuko gara. Aurrera jarraitu behar dugu. Historiak erakutsi digu herritarrok zailtasunen aurrean erreakzionatzen eta horiek gainditzen ikasi dugula. Aurrean dugun etorkizunean guztiok erantzukizunez jokatu behar dugu, lankidetzan aritu eta elkarren artean konpondu. Geure herrialdeak dituen sendotasunetan sinetsi behar dugu. Gure konpromisoaz eta gaitasunaz ez dut inolako zalantzarik; izan ere, argi daukat erabakitasunez, adorez eta kemenez, lortu egingo dugula.

Ez dut gehiago hedatu nahi, baina gogoratu Gabon-gauean jende asko lanean ari dela, gure osasuna, segurtasuna eta lasaitasuna babesteko eta zerbitzu publikoak bermatzeko. Guztiek merezi dute gure aintzatespena, eta garai hauetan bereziki gogoan hartu behar ditugu.

Eskerrik asko zuen arretagatik. Eta gau honek dakarkigun bake eta alaitasunarekin, Erreginarekin eta gure alabekin, Leonor Printzesa eta Sofia Infanta, Gabon zoriontsuak eta Urte Berri ona opa dizkizuegu.

Eguberri On, Bon Nadal, Boas Festas.